

Klaustrokideak:

Otsaila eta martxoan zehar hiru topaketa izan ditugu Agustin Iturriagako liburutegian:

- Otsailaren 25ean **Jon Artano** idazle-kazetaria etorri zen *Juana* liburuari buruz hitz egiteko Batxilergoko 1. mailako ikasleekin.
- Martxoaren 12an **Itxaro Borda** idazlearekin izan genuen poesia tailer bat Literatura Unibertsaleko Batxilergoko 1. mailako ikasleekin.
- Martxoaren 21ean Arte Historiaren Batxilergoko 2. mailako ikasleek poesia errezital bat eskaini zuten **Poesiaren Nazioarteko Eguna** zela eta,

Beti bezala, liburutegia erabiltzera gonbidatzen zaituztegu, hitzaldiak, jarduerak eta bestelakoak antola ditzazuen.

AZKEN EROSKETAK

Fernandez, Beatriz, [Ariadnaren haria](#), Susa, 2025

Infante, Eduardo, [Filosofia en la calle](#), Ariel, 2024.

Larrion Ablanedo, Ane, [Zapalduon pedagogia edo...](#), Herrima, 2024

Mounole Hiriart-Urruti, Céline, [Iparrorratza, kalko eta...](#), 2024

Martinez Peña, Iñigo, [Ezinezkoaren Alde](#), Elkar, 2025

Vargas Nieto, Leire: [Dena ametsa den irudipena](#), Elkar, 2021

Sacco, Joe, [Gerra Gazan](#), Astiberri, 2024

Zaragoza Bernal, Juan Manuel, [Componer un mundo común](#), Lengua de trapo, 2024

COMENDIOAK

Lotura honetan udaberriko lore-liburu politak aurkituko dituzue, goza ezazue!
[Lau poetaren jaiotza ekarriko du udaberriko literatur uztak.](#)